

Beasain

[agenda]

2009ko maiatza

- 5 asteartea
- 17:30ean.- Ipuin kontaketa: "So-so-sorgindutako ba-ba-basoan". Udal Bibliotekan.
- 18:00etan.- Bertso saioa: Ahozkotasun jaialdia. Usurbe Antzokian.
- 8 ostirala
- 15:00etan.- Ikastetxentzako entzunaldi didaktikoa. Usurbe Antzokian. Antolatzailea: Loinatz Musika Eskola.
- 10 igandea
- 08:00etan.- Mendi-irteera: Rafting. Antolatzailea: Aizkorri Mendizale Elkarte.
- 12 asteartea
- 09:30ean.- Haur zinea eskolaumeentzat: "Lotte". Usurbe Antzokian.
- 18:00etan.- Bertso saioa: Ahozkotasun jaialdia. Usurbe Antzokian.
- 14tik 17ra
- Garagardo festa. Loinazko San Martin plaza azpian.
- 15 ostirala
- 18:30ean.- Loinatz Musika Eskolako ikasleen kontzertua. Loinazko San Martin plazan.
- 16 larunbata
- 19:30ean.- Loinatz Musika Eskolako Kantaldia. Loinazko San Martin plazan.
- 23:00etan.- SUGAN taldearen kontzertua. Loinazko San Martin plazan.
- 17 igandea
- 08:00etan.- Mendi-irteera: Sagastarri (Memorial Juanito Cia). Antolatzailea: Aizkorri Mendizale Elkarte.
- Dantzari txiki eguna. Antolatzailea: Aurtzaka Dantza Taldea.
- 22 ostirala
- 15:030ean.- Gipuzkoako Eskolarteko 29. bertsolari txapelketako kanporaketa. Usurbe Antzokian.
- 22tik 31ra
- Loinatz Jaia.

ZINE KLUBA. Antolatzailea: Goieniz Zine-Kluba.

- osteguna
- 21:00etan.- "Joe Strummer: vida y muerte de un cantante" filma. Usurbe Antzokian.
14. osteguna
- 21:00etan.- "Joy Division" filma. Usurbe Antzokian.

ERAKUSKETAK

Maiatzaren 8tik 17ra.

Txindoki-Alkartasuna institutuko Batxiler artistikoko ikasleen lanak. Usurbe Antzokiko Erakusketa Aretoan.

Maiatzaren 1etik 31ra.

Erakusketa: 2009ko Loinatz jaietako kartela aukeratzeko lehiaketan aurkeztutako lanak. Usurbe Antzokiko Erakusketa Aretoaren sarreran. Orduetegi berezia: maiatzaren 1, 2 eta 3an 19:00-21:00 Maiatzaren 8tik 17ra eta maiatzaren 23tik 31ra: ohiko orduetgia.

Orduetgia: Astelehenetik larunbatera/Lunes a sábado: 19:00-21:00. Igande eta jaiegunetan/Domingos y festivos: 12:00-14:00/19:00-21:00.

107.0 FMn

GOIERRI IRRATIA



Mikel Alvarez, irrati arduraduna.

"Webgunea berritu dugu eta irratsaioak edo elkarrizketak entzuteaz gain, bideoklipak ikusteko aukera ere badago"

Abendutik entzuten dugu Goierri Irratia. Zer nolako gorputzaldia duzue hilabete hauek eta gero?

Gustura gaude. Gure lehenengo asmoa zen jendeari jakinaraztea irratia dela zeren ohituren arabera funtzionatzen dugu eta irratia ez da telebista bezain erraz aldatzen.

Jendeak zer esaten dizue? Parte-hartzea handia da?

Jendeak entzuten gaitu eta webgunera sartzen da. Irratia entzuten da kotxean, lanerako bidean... eta badakigu lantegi askotan 107.0 FMn jarrita dutela irratia, eta hori oso ona da. Parte-hartzearena beste kontu bat da. Deitzea jendeari asko kostatzen zaio. Lehiaketa bat badugu baina politagoa izango litzateke mugimendu handiagoa balego.

Webgunea aipatu duzu. Berritu eta hobetu egin duzue.

Bai. Irratsaio guztiak entzungai daude, baita elkarrizketa bereziak ere, hala nola, Ramon Agirreri edo Rafa Ruedari egindakoak. Berrientzat tarte bat ere badago eta baita bideoklipak ikusteko aukera ere.

Musika da zuen amua.

Hori izan zen apustua, bai. Eta uste dut horregatik entzuten gaituztela lantegietan. Musika izan zen hasierako amua. Denetarik jartzen dugu, baina komertzialetik aldentzen saiatzen gara. Badaude talde melodiko onak Euskadi Gaztean aterako ez direnak. Talde asko eta asko ari naiz deskubritzen, eromena da. Jendeak etortzen zait "hau ezagutzen al duk?", "Eta beste halako hura?"...

Udalekuak

	AISIA	MUSIKA	KIROLA
ADINA	9-12 12-16	4-5 6-12	2004-2005 bitartekoak Kolonia Txiki 1993-2003 bitartekoak Kirol Kolonia 1993-2000 bitartekoak Kirola Naturan
NOIZ	Ekainaren 29tik uztailaren 17ra	Ekainaren 29tik uztailaren 10era	Ekainaren 29tik uztailaren 10era Uztailaren 13tik 24ra
NON	Loinazko San Martin plazan eta Gaztegunean	Loinatz Musika Eskola Loinazko San Martin plaza	Antzizar Kiroldegian
JARDUERAK	Jolasak, euskara, kultura natura,...	Jolasak, marrazketa, mimoa, dantza, musika,...	Igeriketa, jolasak, tenisa kirol jokoa, arku tiroketa,...
MATRIKULA	Ikastetxeetan, gaztegunean, eta ludoteketan. Apirilaren 27tik maiatzaren 15era	Apirilaren 27tik maiatzaren 15era Loinatz Musika Eskola	Ekainaren 1etik aurrera Antzizar Kiroldegian
PREZIOA	75,12 €	???	Bazkideek 55,00€ Bazkide ez direnek 95,00€
INFORMAZIOA	943 02 80 63	943 02 81 05	943 88 79 00

Kultura informazio gehiago: www.beasain.net

MAYO 09

Beasain

egunez egun

BEASAINGO UDAL ALDIZKARIA 2009ko maiatza 08



Beasaingo udala



Musika Eskola

Gozamen iturri

8

BIZIGUNE
Udala lanean etxe
hutsak alokairura
ateratzeko.

9

GOIERRIKO CAMPUSA
Ikerkuntzaren eta
berrikuntzaren aldeko
apustu garbia.

11

BERTSO ESKOLA
Amaia Agirre:
"Hemen inor ez da
bertsolaria jaiotzen".



1966

Beasain iruditán...

Haurrak beti haur eta karrozak beti karroza. Horrez gain, ia denak du itxura ezberdina gaur egungo ikuski-zunarekin alderatuz. Janzkerak, kaleak... Aldatu ez dena, desfileko umeen ilusia.



Igokunde eguneko irudiak dira ondokoak. Umeen danborrada Erauskindik Kale Nagu-sira bidean. Sasoi batean, haurrak Igokunde egunean bertan ateratzen ziren. Alegia, Berpizkundeko Igandetik 40 egunera. Gaur egun, larunbatean egin ohi dute ikastetxeek danborrada.



1966

Argazkiak:

Alkatearen txokoa...

Patxi Plazaola



Con la llegada de mayo nos llegan las Fiestas de Loinaz, este año con retraso por cierto. La Comisión de Fiestas ha elegido los carteles y está cerrando la programación. Fiestas y barracas van unidas. Jesús Herce con la caseta de Vino Añejo se nos presenta en la revista.

En portada nos llega la Musika Eskola municipal, de grato recuerdo para muchos beasaindarras. Ros-tros jóvenes y alegres que son condimento necesario en la agenda

cultural del municipio. Nos abren sus puertas y nos ofrecen propuestas e iniciativas interesantes. Mi agradecimiento y felicitación a sus profesores.

El programa BIZIGUNE de promoción de vivienda en alquiler del Gobierno Vasco tiene también su espacio en este número. En Beasain hay unas 500 viviendas vacías mientras las necesidades de vivienda son perentorias. Con el programa BIZIGUNE el Gobierno Vasco alquila por 600€ al mes y por cinco años las viviendas vacías y se responsabiliza de las obligaciones del inquilino. El Ayuntamiento apoya este programa y ha abierto una oficina en J.M Iturrioz, 7. Los propietarios de viviendas vacías serán informados directa y personalmente desde dicha oficina. A día de hoy hay en Beasain 26 pisos de alquiler acogidos a BIZIGUNE el objetivo es lograr otros 30 en un año.

PRIMERA COMUNIÓN

Kristau izatearen kontzientzia hartzea ala opariak pilatzeko eguna?



Imanol Galarreta.



Miren Negueruela.



Maribel Zaldúa.
Catequista



Izaskun Zaldúa.
Katekista

"Azken hiru urteetan etorri naiz katekisia lehenengo jaunartzerako prestatzeko. Jesusen bizitza nolakoa zen jakiteko. Maitasuna, elkartasuna, pakea, zorientasuna... Jesusekin lotuta, gai ezberdinak lantzen ditugu. Baita abestu ere. Errezatu, berriz, nik gauetan erreza-tzen dut amak esaten didanean. Jaunartzea eta gero, ez dakit jarraituko dudan etortzen. Gure gelan bik ezik, beste guztiok egingo dugu Jaunartzea. Egun polita izango da, baina ni oraindik behintzat ez nago urduri. Abituak eman dizkigute dagoeneko. Nire anaiak Jaunartzea egin eta berehala kendu zuen abitua. Argazkia atera arte eraman zuen soinean".

"Askok lehenengo Jaunartzean opariei ematen diete garrantzia. Nire ustez, hori ez da garrantzitsua, baizik eta Jesusen bizitza ezagutzea eta bera nolakoa izan zen jakitea. Txintxoak izan behar dugula esaten digute katekesian. Mahai baten bidez irudikatzen dugu Jaunartzea eta mahaian agertzen dira "maitasuna", "errespetua", "bakea" eta halako hitzak. Balore horiek konpartitu behar ditugula esan nahi du, Jesusen jarraitzaile jator izateko. Ni jada urduri nago Jaunartze egunerako".

"Lo toman y lo tomamos muy en serio. Hay quien dice que es simplemente una puesta de largo de estos niños y niñas. Yo no estoy de acuerdo. Hay mucho más. Los padres dejan en nuestras manos lo mejor que tienen, sus hijos e hijas, para darles catequesis y prepararles para los dos sacramentos que recibirán este año, el Sacramento de la Reconciliación, y la Primera Comunión, y más tarde seguirán en catequesis hasta sexto curso. Eso es importante. A catequesis también vienen niños que piden el sacramento del bautismo. La Iglesia que nosotros y nosotras representamos es una Iglesia cercana, sin grandes alharacas, más doméstica. Nuestras mayores manifestaciones, son la catequesis, la eucaristía y el vivir con las demás personas en el día a día en nuestro pueblo, y en la vida en general, llevando el mensaje del Dios de Jesús de Nazaret, "siendo aprendices de cristiano".

"Egia da "boom" bat izaten dela kasu askotan. Sekulako opariak, soinekoa... tira, hemen abitua eramaten dute, nahiz eta batzuk argazkietarako bestelako jantziren bat erabili. Baina uste dut, agian krisiaren-gatik edo, aurtan gurasoak nahiko kontzientziatuta daudela alde horretatik. Izan dira eskatu digutenak Jaunartzea egun normal batean egiteko eta jarraian merienda batekin bukatzeko. Ez dut hainbeste eske somatu. Agian gero etxean beste era batera jokatu dute baina... Garai berrietara egokitzen joan behar dugu. Hori ondo egiten dute gure apaizek. Iazko Jaunartze meza, esaterako, oso polita izan zen eta haurrak ez ziren batere aspertu. Apaizak, power point baten bidez, euren gustukoak diren deporteko irudiak jarri zizkien, besteak beste. Ondo pasatu".

Beasaindar guztien esku dago

Editorea:
Beasaingo Udala

Lege Gordailua:
SS-1284-2008

Beasaindik kanpo bizi direnek aldizkaria jasotzeko:



943 02 80 50



@ udala@beasain.net

www.beasain.net

OHARRA

Beasain
egunez egun

Herriko festak, ate joka

maiatzaren 22tik 31ra

Jose Manuel Esnal, lehiaketako irabazlea.

“Telebista ikusi ordez, egunean bizpahiru ordu ematen ditut kartelak egiten”

¿Has echado a la papelera muchos bocetos antes de elegir el definitivo?

Normalmente, primero indago en Internet para informarme sobre el tema, en este caso, las fiestas patronales. Luego hago fotos y teniendo claro lo que se festeja, hago un primer boceto a lápiz, lo escaneo y lo trabajo luego en el ordenador con programas de diseño. Y de ahí en adelante, todo es cuestión de suerte. Hay veces que sí dudas entre dos o tres.

Pero tú ya tienes experiencia en esto de los concursos...

Suelo presentarme a muchos, y he ganado concursos en Mendaro, Zarautz...

¿Tiene tu trabajo alguna relación con el arte o para ti esto es un hobby?

Mi trabajo no tiene nada que ver. Es pura afición. Empecé con la pintura pero como lleva mucho tiempo, pasé a los carteles y estoy enganchado desde hace tres años. En lugar de ver la tele, me paso al día dos o tres horas en esto.

Loinatz jaiak gain-gainean ditugu. Zalaparta egunak lehertu aurretik, ordea, lan asko dago egiteko. Eszenatokiak prestatu, egitaraua borobildu, gune ezberdinak antolatu... Edonola ere, aurtengo festei jarri zaie jada merezi duten irudia. Kartel lehiaketako irabazleak Jose Manuel Esnal elgoibartarra eta La Salleko 2. DBHko ikasle talde bat izan dira.

Un autodidacta total.

Total. Empecé leyendo libros. De todos modos, cada vez hay más interés y se presentan más trabajos, aunque luego te das cuenta de que siempre coincidimos la misma gente.

¿Cómo definirías tu estilo?

Depende del destino del cartel, pero me gusta que sean con mucho color. Juego con imágenes, más que con símbolos. Los de fiestas tienen que llenarte de un golpe de vista.

Jose Manuel Esnal



Lehiaketan irabazle suertatu den La Salleko ikasle taldea.

“Dirusariarekin ikasturte amaieran merienda egingo dugu”

Nolatan animatu zineten lehiaketan parte hartzera?

Eskolan esan ziguten eta plastikarako lehendik ere taldeak eginak genituenez, ba elkarrekin egin dugu.

Pentsatu duzue zer egin saritan jasotako diruarekin?

Ikasturte bukaeran gelakoekin eta irakasleekin merienda egitea erabaki dugu.

Tenpera-pintura erabili duzue. Baina ez al dira hainbeste esku gehitxo lan bakar baterako?

Zatika margotzen genuen. Ez dugu eztabaidatu, ondo ematen gara. Egia esan, irakasleek asko lagundu digute. Originalak izateko ideia batzuk eman zizkiguten.

Eta ideia horietan oinarritu zarete, ezta?

Bai. Hasieran pentsatuta genuen marra zuzenak erabiltzea eta esan ziguten, kurbatuak egiteko, erregularik gabe eta xehe-tasunik gabe. Kolore biziak jartzeko ere ohartarazi gintuzten. Eskema moduan egiteko, letrak garbi irakurri behar zirela, e.a.

Paperontzira zirriborro asko bota behar izan al duzue?

Batzuk bai, egia esan. Bizpahiru asteko lana izan da.

Beste lehiaketaren batera aurkeztea pasa zaizue burutik?

Bai, emaitza ikusita... Gure lana programarako da eta pozgarria da pentsatzea gero herrian ikusiko dutela. Nahi bai baina irabazteko esperantzarik ez genuen. Gure gelan egindako lanetatik, batzuk oso onak ziren. Eskerrak eman nahi dizkiogu Mila Garmendia irakasleari eta epaimahaiari.



Ametz Arrospide, Cynthia Borrachero, Aroa Muñoz, Ainhoa Lopez de Arregi eta Nagore Izagirre

Jesús Herce, regenta la caseta de vino añejo “El Abuelo”.

“Udako hilabeteak gogorrak diren arren, negua Errioxan eman dezaket”

Los feriantes son los últimos nómadas que quedan...

Más o menos. Yo llevo en esto toda mi vida, pero compensa. Si tuviera que andar todo el año con el carromato, quizás no. Pero me paso todo el invierno en La Rioja, y se sobrelleva mejor así, aunque los meses de verano son muy duros. Son muchas horas de pie, atendiendo y si pierdes un día no hay forma de recuperarlo.

Lleva sirviendo vinos desde que llegó a la altura de la barra...

Así es. A Beasain he ido desde crío. Antes nos juntábamos siempre en el Bar Norte a charlar y echar una partida. Tengo buenos recuerdos y buenas anécdotas.

¿Pertenece usted a una saga de feriantes?

Mi padre empezó con una caseta de tiro pichón, pero aquello era más complicado y vio negocio en esto del vino. Podemos llevarlo entre dos personas. Yo voy con mi mujer. Llevamos 54 años.

54 años y miles de kilómetros recorridos...

Lo importante no es la cantidad de kilómetros sino la calidad de la fiesta. Empezamos la temporada en Lazkao, luego toca Beasain, Granada...

¿Qué tal es la clientela de Beasain?

Buenísima. No tengo ninguna queja ni de los clientes ni del Ayuntamiento. Yo no soy de paso, tengo que volver al año siguiente así que soy el primer interesado en atender bien, en ofrecer buen vino...

Jesús Herce atendiendo en su caseta.



Musikak bizitza luzatzen duelako

Hay quien está convencido de que la buena música, como la risa, alarga la vida. Quizás no es la música en sí lo que alarga la existencia de los mortales, sino el placer de disfrutar con lo que uno hace. Ése es precisamente el primer objetivo de la escuela: hacer disfrutar de la música a los 330 alumnos que acuden a Musika Eskola, aun sabiendo que quizá no llenen auditorios o no se dediquen a ella profesionalmente. Y es que cada vez son menos quienes, dejando atrás Musika Eskola, optan por seguir estudiando en los conservatorios con la idea de labrarse en un futuro una trayectoria profesional. A algunos tampoco les va nada mal. De Musika Eskola han salido grupos como Briganthya o Sugan. Y sí, llenan las salas.

Zuen ikasleen artean denetarik dago. 5 urteko haurretatik hasi eta 75 urtekoetaraino. Denei gomendatuko zenieke musika ikastea?

Aholku gisa denei emango nieke. Gauza askotarako ez da trebezia berezirik behar. Kirola aholkatzea bezala da, eta oso ondo dator adiskidetasuna garatzeko, diziplina barneratzeko...

Beti lor daiteke hobekuntza bat edo musikarako jai ez denak jai du?

Pedagogoei diote beti lor daitekeela hobekuntza. Orokorrean, denok balio dugula. Beti lortzen da zerbait, baina hortik esatea denok irits gaitzkeela maila on bat eskuratzera... baina bai disfrutatzeko lain. Igerian denok ikas dezakegu baina agian ez maila on batekin. Futbolearen badaude ondo ibiltzen ez diren gazte txoak...

Zein musikatresnak du eskaera handiena?

Betidanik izan dira instrumentu batzuk ikasle gehiago erakartzen dituztenak, pianoa, gitarra, besteak beste. Haizezko instrumentuak dira bultzatu nahi ditugunak,



Arantxa Gastesi

Loinatz Musika Eskolaren zuzendaria

Banda eta beste hainbat talde indartzearen, tronpeta, klarineta, saxofoia, tuba...etab. Harizko orkestran ere komenigarria izango lirateke biolinak ez diren instrumentuak, hau da, biola, biolontxelo... Garai batean, ikasketa profesionalak zirenean, ikasle gehiago ziren eta instrumentu matrikula orekatuagoa zen, baina beste modu batera bizi ginen, ezta?

Zerk ekarri zuen aldaketa hura?

Logse legeak. Orduan planteatu zen Musika Eskolak izan behar dutela hezkuntza orokorraren osagarri. Irakasten ditugun gaiak ez dira ofizialak, hau da, titulurik ez da lortzen. Horrek abantailak ere baditu.

Adibidez?

Benetan ikasi nahi duen jendea dago, eta ez titulu baten atzetik etorritakoa. Atseginagoa eta aberasgarriagoa suertatzen da ikastea. Horrekin lortu da musika gizarteratzea, zabaltzea.

Musika Eskolan hiru maila ematen dira. Hirugarrena, 12 eta 15 urte bitartekoentzat. Eta gero zer?

Hemen jarraitu daiteke adin mugarik gabe, nahi den arte. Beti ere, hobby modura edota Kontserbatorioetan sartzeko frogak prestatuz.

Musika lanbidetzat hartu nahi duenak bi aukera ditu:

- 1.- Ertain Maila Kontserbatorioan ikastea, 12 urtetik 17ra bitartean hasiz gero, hau da, Batxilergoarekin batera, eta ondoren Musikenen Goi Mailako ikasketak egitea.
- 2.- Zuzenean, Musikenen Goi Mailako ikasketak egitea 18 urtetik gora.

Kasu guztietan dagokion sarrera froga gairatu beharko du.

Baduzue jauzi hori eman duen ikaslerik?

Orain ez. Denek hemen jarraitu dute eta Musika Eskolaren helburua hori da, gustuz ibiltzea, nahiz eta beste lanbide bat izan. Norbaitek jauzi hori eman nahi baldin badu, gure lana da ondo bideratzea. Baina garbi eduki behar dugu ahal duen ala ez. Ez da bakarrik kontutuan hartu behar gustatzen zaion. Nahi dutenei eta ahal dutenei gomendatu behar zaie hori, eta askok ez dute apustu hori egin nahi.

Gero eta profesional gutxiago dagoela diozu...

Legea aldatu zenetik jaitziera nabarmena izan da alde horretatik, eta arazoa larria da, zeren ez dago irakaslerik ordezkapenak egiteko. Oso irakasle gutxi dago, zeren lege berriaren arabera goi mailako titulua da, irakaskuntzarako gaitzen duen bakarra. Irtenbide bat eman nahi zaio eta Eusko Jaurlaritza aztertzen ari da Kontserbatorioetan erdi mailako ikasketak egiten dituztenei Musikenen antolatuko den pedagogia espezialitatea egin eta irakaskuntzan aritzeko gaitasuna ematea. Hori horrela balitz, jende gehiago animatuko litzateke, baina oraindik kolokan dago.



“Lagun berriak egiteko ere balio du Musika Eskolak”

Jon Goya

“Merezi du Musika Eskolara etortzeak, ongi pasatzen dugu”

Mikel Etxeberria

“Zenbat eta hobeto jo nahi izan, are eta ordu gehiago sartu behar dira”

Juani García

“Las clases de piano son mi momento de relax, de sentir que hago algo diferente”



Una apretada agenda para mayo

Entzunaldi didaktikoa

El 8 de marzo, a las 15.00h. en Usurbe Antzokia. Dirigida a escolares de 1º y 2º de Educación Primaria de todos los colegios. Durante la audición, los alumnos tocarán todos los instrumentos que se enseñan en la Musika Eskola.

Musika Kalean

El 15 de mayo, a las 17.30h. los txistularis y los trikitilaris animarán las calles de Beasain. A las 18.30h. se ofrecerá un concierto de la mano de varios grupos cuyas tendencias musicales son muy variadas. En Loinazko San Martin plaza.

VII. Kantaldia

El 16 de mayo, a las 19.30h. en Loinazko San Martin plaza tendrá lugar el VII. recital de canto. Participarán, además de la Musika Eskola, la coral Loinatz, Asmube, la asociación Txilibutxof, el Euskaltegi, el coro de los jubilados y el de la Parroquia de San Martín y Aurtzaka.

Herriko jaiak

La Banda y los Txistularis amenizarán las calles durante las fiestas. El 22 de mayo, a las 22.30h. actuarán los grupos de percusión y trikitixa durante la bajada de Mari. El 23 de mayo, a las 23.30h. tamborrada de la Banda en Loinazko San Martin plaza. El 24 de mayo, a las 13.00h. por primera vez tocará la Banda al finalizar la tamborrada infantil. El 29 de mayo, a las 9.00h., Diana a cargo de los dulzaineros. Este año, por vez primera. El 29 de mayo, a las 19.00h., la Banda y los txistularis acompañarán a los cabezudos.

El plazo de matrícula para los nuevos alumnos será del 1 al 12 de junio. Para más información: 943 02 81 05

[Beasain]
egunez egun

Udalak Bizigune programa indartzeko bulegoa zabaldu du

Bi hitzetan

Beasaingo Udalak Bizigune programa bultzatzeko bulego bat egokitu du, jendeari informazioa eskaini eta prozesuan laguntza emateko.

SE ALQUILA

INFORMAZIO BULEGOA
J.M. Iturrioz, 7an.
Goizetan zabalik, astelehenetik ostiralera

Begoña Lasa (EB). Bigarren alkateordea

Zer da Bizigune programa?

Eusko Jauriritzak etxebizitza hutsak mobilizatzeko duen programa da. Merkatu librean etxe bat eskuratzeko adina baliabide ez duen jendeari zuzenduta dago. Etxejabeek Biziguneren esku uzten dituzte etxeak eta trukean merkatuko errenta jasotzen dute hiler. Kontratua bukatutakoan, Bizigune arduratzen da etxea utzita bezala bueltatzea. Alokatzan duenak, berriz, bere diru-sarreraren arabera errenta ordainduko du. Merkatuko preziora iristeko geratzen den diru kopurua Bizigunek jartzen du.

Udalak bulego bat jarri du Bizigune programa sustatzeko. Zer egingo da?

Oraingoz, Beasainen 26 etxe daude Biziguneren esku, baina gehiagora joan behar dugu. Horregatik, bulegotik 500 bat etxejabe deituko zaie informazio eman eta Bizigunen izena eman nahi duten galdetzeko. Jende askorentzat aukera bat da eta alde bientzat onurak dakartza.

Elena González. Propietaria de un piso alquilado a través de Bizigune

¿Está usted satisfecha con el programa Bizigune?

Sí. El piso lleva alquilado unos tres años y no hemos tenido ningún problema. Es de mis padres y estaba a estrenar.

¿Es engorrosa la tramitación o es un proceso más bien sencillo?

No es complicado. Bizigune tiene una oficina en Donostia y ahí nos explicaron todo. Nos pareció interesante.

¿Por qué?

Sabes que vas a recibir el dinero del alquiler seguro y en la fecha exacta. No tienes que estar pendiente de si te van a pagar o no. Y que van a cubrir cualquier tipo de daños. Es decir, que te dejan la casa tal y como tú la has dejado.

Y lo alquilan a precio de mercado, ¿no?

Si lo alquilas de forma particular, quizás te paguen más, pero no tienes la seguridad que te da Bizigune. Vienen, hacen una valoración del piso, hacen también un inventario de todo lo que hay y son ellos quienes ponen el precio. A los cinco años, puedes renovar el contrato o no.

Ana María Fernández. Inquilina de un piso gracias al programa Bizigune

¿Cómo se enteró de la existencia del programa?

Me lo comentaron en el departamento de Servicios Sociales del Ayuntamiento. A partir de ahí, tuve que ir a Donostia con toda la documentación. Para mí no fue nada complicado. Eso sí, todos los años tienes que mandar la documentación actualizada. La declaración de la renta, las nóminas... vamos, lo normal, creo yo.

¿Tuvo que esperar mucho tiempo hasta que le dieran el piso?

No. Tuve mucha suerte. Estuve año y medio esperando. Mi hija y yo entramos justo hace un año. Esto no es a dedo. Yo pedí un piso vacío para dos personas. Puede que otra gente haya tenido que esperar más porque igual necesitan un piso grande y en ese momento no hay, o porque lo quieren amueblado o ... A mí me encantó el cambio.

Si a un posible inquilino no le convence el piso que le ofrecen, ¿tiene la posibilidad de renunciar?

Creo que puede renunciar a un piso tres veces, no más. Eso sí, es Etxebide el intermediario en todo momento. Yo no conozco al propietario del piso ni él sabe quién soy yo.

¿Realizan inspecciones?

Pueden venir a revisar, sí. Pero en mi caso, en el tiempo que llevo ni han venido ni me han llamado.

¿Animaría a la gente a inscribirse en Bizigune?

Sí. Yo si fuera propietaria de un piso, lo alquilaría a través de Bizigune. Y como inquilina, para mí ha sido como una lotería. Tienes que cumplir ciertas cláusulas. Por ejemplo, no puedes tener animales en casa, tampoco pueden vivir más personas de las que aparecen en el contrato, tienes que hacer un seguro, tienes que pedir permiso para hacer cualquier tipo de obra en la casa... los dueños pueden estar tranquilos. Está todo muy bien atado.

Pero a los cinco años, ¿se puede quedar sin casa?

El contrato es para cinco años y renovable. Si los propietarios no quieren volver a alquilar el piso, Bizigune se encarga de buscarte otro en las mismas condiciones.



“Gomendagarria da Bizigune programa, batik bat, etxejabeek ematen dien segurtasunagatik”



“Niretzat loteria izan da”

Campus Universitario del Goierri

Los ingenieros ponen el acento en la investigación

El plazo para la prematrícula para la carrera de Ingeniería Mecánica, o bien para cursar el primer año del resto de titulaciones que ofrece la Escuela Goierri, estará abierta hasta el 9 de junio. El campus acoge cada año a unos 60 nuevos estudiantes. Todos ellos se enfrentarán, como explica el director de la Fundación Goierri, Jose Mari Ormazabal, “a las necesidades de la sociedad post-industrial, concentrada en la generación de conocimiento científico y tecnológico, más que en el trabajo manual”. Es decir, la tabla de salvación, en gran medida, está en la investigación y en la innovación. El reto es capacitar a los futuros ingenieros para que puedan aportar valor añadido en sus productos o servicios, y convertirse así en aliados de las empresas de la comarca, bien para diversificar la economía local,

bien para ir acaparando nuevos mercados. Y todo ello, con un nuevo modelo educacional: el Bolonia.



Jose Mari Ormazabal eta Jesus Mari Gaztañaga.

Arrasateko Goi Eskola Politeknikoaren Goierriko Campusean argi dute. Ikerkuntza-aren eta berrikuntza-aren ordua da. Ezinbestekoa da ingeniariak prestatzea erronka berriei aurre egiteko, unibertsitatea, enpresa mundua eta ikerketa guneak uztartuz, indarrak batuz. Unibertsitatearen eta enpresen arteko harremanak estua eta hurbilekoa izan behar duelakoan daude. Ildo horretan lan egiteko, azken urteetan eman den jauzirik esanguratsua Boloniak ekarri duen hezkuntza-ereduaren aldaketa da. 2008-2009ko ikasturtean jarri dute indarrean estrainekoz. Goierriko campuseko zuzendari Jesus Mari Gaztañagaren aburuz, onurak baino ez ditu ekarri metodologia berriak. “Esaten da titulazio batzuk kentzeko asmoa dutela eta bitarteko gutxiago izango dela. Guk orain arte abantailak bakarrik ikusi dizkiogu. Ikaslea ikasketa prozesuarekin konprometizera behartzen du. Aurreko ereduarekin, azken azterketan jokatzan zen ia dena. Orain ebaluazio jarraia egiten da. Praktikak baloratzen dira, etxera bidalitako lanak, proiektuak... Alderdi gehiago baloratzen dira”. “Gainera –dio Fundazioaren zuzendariak, Jose Mari Ormazabalek– gaien %70 gaituz gero, titulua eman egiten da”. Halaber, Ormazabalen esanetan, egin dituzten inkestak arabera, ikasleen asebetetze mailak gora egin du. Baita emaitzak ere. “Otsailean 1. graduiko ikasleen emaitzak urte osora estrapolatuko bagenitu, %70ak ikasturtea gaituz gero gaituz luke eta hori ingeniarietza batean sekulako arrakasta da, eta dena da prozeduraren gaitasuna”.

Urtero, 60 bat ikasle berri hasten dira campusean. Goierriko campusean, mekanika ingeniarietza ikasketa osoak burutu daitezke. Gaituz gero ingeniarietza dagokienez –industria diseinua, antolakuntza, elektronika, informatika eta telekomunikazioa– lehenengo ikasturtea eskaintzen da. “Gure nahia da –dio Ormazabalek– etorkizunean titulazio bat baino gehiago eskaintzea. Gainera, masterak diseinatzen ari gara”. Izan ere, hezkuntza-eredu aldaketaren ondorioz, ikasleek lehenengo gradua egin beharko dute ingeniarietza titulua lortzeko, hau da, lau ikasturte. Ondoren, nahi dutenek bi urteko master bat egin ahal izango dute. Edonola ere, eta orain arte lekuz justu antzean ibili badira, Goierri Berrikuntza Gunearen irekierarekin askoz ere espazio zabalagoa izango dute ingeniariak. Irailean inauguratzekotan dira.

[Beasain]
egunez egun

BOLONIA
iraultza hezkuntza eredu



Garazi Auzmendi, 3. mailako ikaslea.

“Bi sistemen desabantailak jasatea tokatu zaigu”

“Gu erdian harrapatu gaitu Boloniak eta aurreko eta inplantatuko den metodologia berria nahastu dizkigutenez, ezertarako astirik gabe gabiltza. Alegia, Boloniak agintzen duen hezkuntza-ereduaren metodologia aplikatu zaigu neurri batean, eta beraz, proiektuak eta talde lanak etengabe egin behar ditugu, baina aldi berean, amaierako azterketei lehenengo balio bera ematen zaie. Hau da, proiektuak egin behar ditugu, baina baita amaierako azterketak ere. Lehen norberak nahi bazuen, dena azkenerako uzten zuen. Orain, ez dugu beste erremediorik, zeren ez daukagu denborarik ikasteko. Bi sistemen desabantailak jasatea tokatu zaigu”.

Iñigo Iturbe, 1. mailako ikaslea.
Boloniako hezkuntza-eredua jarraitzen dute.

“Metodologia berriak konbentzitu nauka”

“Nik ezin dut bi hezkuntza ereduak konparatu ez dudalako erreferentziarik. Bolonia sartzearekin, ia astero egiten dugu azterketaren bat eta gaituz gero, gaiak kentzen joaten zara. Berez, ez dago amaierako azterketarik. Eskatzen du egunero lana egitea. Pare bat proiektu ere egin ditugu jada. Ni metodologia berri honek konbentzitu nauka”.



[Beasain]
egunez egun

Cada vez más personas llaman a la puerta de Servicios Sociales

Zenbakiak zenbaki huts diren arren, Gizarte Zerbitzuen kasuan, bakoitzaren atzean pertsona bat ezkutatzen da. Pertsona bat eta bere senide edo ingurukoak. Gizartea zahartzen doan heinean, beharrak areagotzen doaz eta geroz eta gehiago dira Gizarte Zerbitzuetara hurbiltzen direnak.

2008ko datuei gainbegirada bat eman diegu.



A finales de mayo culmina el plazo para solicitar estancias temporales en residencias para mayores

El plazo para solicitar plazas de estancia temporal en residencias para mayores acaba a finales de mayo. Es un servicio dirigido a personas mayores de 65 años, que por su grado de dependencia, necesitan atención temporal en un centro residencial, por circunstancias de las personas que los atienden.

Para ello, son requisitos indispensables estar censado en Beasain, tener hecha la valoración de dependencia, así como el RAI (información sociosanitaria del paciente).

La estancia máxima será de un mes y durante los meses de verano la estancia mínima será de 15 días, pudiendo optar por la primera o segunda quincena de cada mes.

Además, los solicitantes pueden elegir entre centros ubicados en toda Gipuzkoa.

El año pasado, se solicitaron 16 estancias temporales.

Gizarte Zerbitzuak zenbakitan Sabías que en 2008...

- 97** usuarios recibieron ayuda a domicilio?
- 22.757** han sido las horas en las que se ha atendido a personas tanto autónomas como dependientes mediante la ayuda a domicilio?
- 22** solicitudes nuevas se han recibido en el Ayuntamiento para la Residencia?
- 32** personas han utilizado el Centro de Día y que se han tramitado otras 11 nuevas solicitudes?
- 106** usuarios han contado con el servicio de teleayuda y la han solicitado otras 30 personas?
- 16** personas han solicitado una estancia temporal en diferentes residencias?
- 8** personas han estado en pisos de emergencia?
- 39** personas han solicitado la tarjeta de aparcamiento para discapacitados?
- 2** mujeres y 4 menores han utilizado el piso de acogida municipal?

Egoitzetan aldi baterako denboraldia egin ahal izateak, menpekotasuna duten pertsonen zaintzaileei atsedeen hartzeko edo oporretara joateko aukera ematen die. Askotan eskaera egiten da zaintzailea gaixotu delako edo arrazoi jakinen batengatik ezin duelako egun batzuetan bere zaintzapean dagoen pertsona artatu. Gehinera jota, hilabeteko egonaldia egin dezakete. Udan, berriz, gutxienez hamabostaldi bat igaro behar izaten dute erabiltzaileek.

Erauskingo igoera

La Salleko ikasleek Euskaltel eta Cafés Baqueko txirrindulariak izango dituzte bide-lagun



Carrera de cadetes del pasado 7 de marzo.



Jose Mari Ormazabal eta Jesus Mari Gaztañaga.



Jose Mari Ormazabal eta Jesus Mari Gaztañaga.

La subida de este año será la edición número 50. Según nos cuenta el profesor de La Salle, Joxe Martín Garmendia, "aunque la tradición viniera de antes, no comenzaron a numerar las carreras hasta 1960". Y como coincide con el centenario de la presencia de los Hermanos en Beasain, el próximo 22 de mayo, veremos a corredores de Euskaltel y Baqué compartiendo pelotón con niños y niñas del colegio. Tras el pedaleo, quienes lo deseen podrán acercarse al centro para ver lo que da de sí el concurso de pinchos. "Este año, además, hemos decidido que todos comeremos en el colegio. Estamos decidiendo el menú".

Noiz: maiatzaren 22an.

Irteera: goizeko 10:30ean, Geltokian.

Nafarroa etorbidea zeharkatu eta Kale Nagusitik barrena, Andre Mari kalean sartuko dira Erauskin auzora heltzeko.

Bertso Eskola

Plaza gizonen harrobia

Lazkaoko San Benito Ikastolan bertso saioa eskaintzen harrapatu ditugu Beasaingo Bertso Eskolako hainbat ikasle. Ez diote muzinik egiten jendaurrean aritze horri. Plaza gizonak dirudite.



Amaia Agirre.
Beasaingo Bertso Eskolaren arduraduna.

“Etxean lanik egiten ez duenak jai dauka, hemen ez da inor bertsolari jaiotzen”



Iñigo Perez

“Gabonetan, adibidez, aitona eta biok elkarrekin aritzen gara bertsoan bapatean. Ez zaizkit oso onak ateratzen baina tira, moldatzen naiz. Aitonak esaten dit beti dagoela zer hobetu”.



Nikolas Sarriegi

“Bapatekotasunak ematen du beldur apur bat. Bestela, kantatzeak ni ez nau urduritzen. Egia esan jendaurrean oraindik ez dut sekula estuasunik pasa. Hobeto edo okerrago, beti ateratzen zait zeezer”.

Matrikula epea: Maiatzaren 4tik 29ra. Ikastetxeetan banatuko da informazioa eta matrikula orria. (Irailetik maiatzera, astean ordu eta erdiko saioak)

Nola ikusten duzu Beasaingo Bertso Eskola?

Amaia Agirre: Talde gaztea da, eta oso ume azkarrak daude bertan. Motibazio ezberdinak dituzte eta jende arrerako pausoa ematea kosta egingo zaie, baina hori normala da. Oraindik gaztetxoak dira, eta lanean jarraitzen badute aurrerapauso handiak egingo dituzte.

Zergatik sortu zen?

A.A.: Goierriko Bertso Eskola deritzon talde egituratu bat dago oinarrian, potentzial handikoa. Lehen denak Ordizian elkartzen ziren, baina orain inguruko herrietan ere Bertso Eskolak sortzeko ahaleginetan ari gara. Beasain herri handia da eta ezinbestekoa zen Bertso Eskola baten presentzia. Transmisioan lan handia egiten ari da Goierriko Bertso Eskola eta Gipuzkoako Bertsozale elkarteak. Herri guztietara iritsi nahi genuke. Ahozketasuna ezezik Bertso Eskolan dohai eta gaitasun asko lantzen dira.

Zein da Beasaingo Bertso eskolaren erronka nagusia?

A.A.: Bertso Eskola guztien moduan indartzea eta sendotzea da helburua. Herrian erreferentia izatea. Lagun talde bat bihurtzea, eta bertsoarekin gozatzea. Bertsolaritza barrutik sentitzea ezinbestekoa da. Denak ez dira bertsolari izatera iritsiko, baina epaile, gai-jartzaile nahiz antolatzaile izan daitezke. Bertsolaritza bat-bateko jardunaz gain mundu zabala baita.

Zein da bertso irakasle baten egitekoa? Bertsotan irakatsi daiteke edo berezkoa behar da?

A.A.: Saiatzeko gara umeak motibatzen. Lan psikologikoa egin behar du irakasleak. Jolas moduan lantzen dugu bertsolaritza eta haurrei egokitutako bertsoekin, ez Xalbador edo Txirritenekin. Etxean piskat aritzen denak behar behar ateratzen die beste abantaila. Eta etxean lanik egiten ez duenak jai dauka. Etorria, grazia, horiek guztiak bai, baina hemen inor ez da bertsolari jaiotzen.

Ikastetxeetan duela bost urte hasi ziren ahozketasuna lantzen. Laguntzen du?

A.A.: Ahozketasuna eta Bertsolaritza proiektua Gipuzkoan 8.000 ikasletara heltzen da. L.H.ko 5. eta 6. mailatan eta 1go DBHn ematen da. Bertso eskolekiko zubi-lana egiteko modua da. Irakasleen lana da ikasle horiek motibatzea gero bertso eskolan hasteko pausoa eman dezan. Eredu euskaldunetan eta ez euskaldunetan ematen da. Askok ez dakite Andoni Egaña zein den ere, eta beraz, bertso mundua ezagutzeko modua da. Izan ere, ahozketasuna eskolatan gero eta gutxiago lantzen da. Jendaurrean aritzea, gai baten inguruan arrazoiak ateratzea, hitz-jokoak, esamoldeak...

Ikastetxe guztiek hartzen al dute parte ahozketasun programa horretan?

A.A.: Ikastetxe guztiak ari dira ahozketasuna lantzen baina Bertso Eskolarekin, gaur egun, Beasainen Murumendi eta Alkertasuna Lizoea soilik ari dira. Andramendi ikastolan eta La Sallen ere bertsolaritza lantzen dute baina Gipuzkoako Bertsozale Elkarteak irakaslerik ez da joaten bertara. Hala ere urte amaierako bertso jaialdia berdin-berdin egiten dute, eta hori estimatzen da.

